Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko maiatzaren 16a, astelehena — 91 — Lunes, a 16 de mayo de 2022



## LEGAZPIKO UDALA

*Iragarkia*

Legazpiko Udal-korporazioaren Osoko Bilkurak, 2021-09-29an egin zuen ohiko bileran, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 47.2 artikuluan aurreikusitako gehiengoarekin, hasierako onespena eman zion «Udalerriko aparkaleku publikoetan eta beste kale batzuetan egokitutako eremuetan trakzio mekanikodun ibilgailuen estazionamendu arautua mugatzeko eta antolatzeko zerbitzu publikoa arautuko duen Ordenantza»ri.

Hasiera bateko onespenaren iragarkia 2021-10-29ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen.

Jendeaurreko informazio-epea amaiturik eta alegazioak aurkeztu ez direla ikusi ondoren, aipatu araudiaren aldaketa behin betiko onespena jaso duela ulertzen da, beraz argitaratzen da.

Legazpi, 2022ko maiatzaren 5a.—Koldobike Olabide Huelga, alkatea. (2857)

*Udalerriko aparkaleku publikoetan eta beste kale batzuetan egokitutako eremuetan trakzio mekanikodun ibilgailuen estazionamendu arautua mugatzeko eta antolatzeko zerbitzu publikoa arautuko duen Ordenantza.*

### I. TITULUA

### EUSKAL HERRIA PLAZAN ETA UROLA KALEA 8-C (PAPER-FABRIKA) EREMUAN ORDUTEGI MUGATUA DUTEN APARKALEKU PUBLIKOAK ARAUTZEA

*1. artikulua. Xedea.*

Hauxe da Ordenantzaren atal honen xedea: trafikoa antolatzen eta hobetzen laguntzea, 6 metroko luzera eta 3.500 kg-ko pisua gainditzen ez duten trakzio mekanikoko ibilgailuen aparkalekua aldi baterako mugatuz, honako aparkaleku publikoetan: Euskal Herria plaza eta Urola kalea 8-C (paper-fabrika).

*2. artikulua. Ordutegia.*

Aipatu bi aparkaleku publikoetan estazionamendu mugatuaren funtzionamendurako ezartzen den ordutegia honako hau da:

— Euskal Herria plaza: 08:00etatik 21:00etara.

— Urola kalea 8-C: 06:00etatik 22:00etara.

Ordutegi hori Alkate-udalburuaren dekretuaren bidez aldatu ahal izango da.

*3. artikulua. Aparkatzeko baldintzak.*

Aipatutako aparkaleku publikoetan aparkatzeko, arau orokor eta partikular guztiak betetzeaz eta ibilgailuak aparkatzeari buruzko seinaleak betetzeaz gain, honako baldintza hauek bete beharko dira:

1. Tiketa eskuratzea, dagokion denbora-muga eta ibilgailuaren matrikula zuzena adieraziko duena; tiketa horretarako instalatuko diren parkimetroetan aterako da.

2. Tiketa ibilgailuan ikusteko moduko leku batean jartzea.

## AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI

*Anuncio*

Que el Pleno del Ayuntamiento de Legazpi en sesión ordinaria celebrada el día 29-09-2021 aprobó con carácter inicial, con la mayoría prevista en el artículo 47.2 de la Ley 7/85 de Bases del Régimen Local, la «Ordenanza reguladora del servicio público de control de limitación y ordenación del estacionamiento regulado de vehículos de tracción mecánica, en parkings públicos y espacios habilitados en otras calles del municipio de Legazpi».

El anuncio de la aprobación inicial fue publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 29-10-2021.

Transcurrido el plazo de información pública sin que se hayan presentado alegaciones, el citado Reglamento se entiende aprobado definitivamente por lo que se procede a su publicación.

Legazpi, a 5 de mayo de 2022.—La alcaldesa, Koldobike Olabide Huelga. (2857)

*Ordenanza reguladora del servicio público de control de limitación y ordenación del estacionamiento regulado de vehículos de tracción mecánica, en parkings públicos y espacios habilitados en otras calles del municipio.*

### TÍTULO I

### REGULACIÓN DE LOS PARKINGS PÚBLICOS CON LIMITACIÓN HORARIA DE EUSKALHERRIA PLAZA Y UROLA KALEA 8-C –(PAPELERA)–

*Artículo 1. Objeto.*

Este apartado de la presente Ordenanza, tiene por objeto ayudar a ordenar y mejorar el tráfico, mediante la limitación temporal del estacionamiento de vehículos de tracción mecánica, que no superen los 6 metros de longitud y los 3.500 kg de peso, en los parkings públicos: Euskal Herria plaza y Urola kalea 8-C (Papelera).

*Artículo 2. Horarios.*

El horario que se establece para el funcionamiento del estacionamiento limitado en ambos parkinges públicos es el siguiente:

— Euskal Herria Plaza: De las 08:00 horas a las 21:00 horas.

— Urola Kalea 8-C: De 6:00 horas a las 22:00 horas.

Este horario podrá ser modificado mediante Decreto de Alcaldía-Presidencia.

*Artículo 3. Requisitos para el estacionamiento.*

Para estacionar en los parkings públicos reseñados, además de cumplir además de cumplir todas las normas generales y particulares y observarse las señalizaciones que afectan el estacionamiento de vehículos deberán cumplirse los siguientes requisitos:

1. Obtener ticket con la vigencia temporal correspondiente con la indicación correcta de la matrícula de vehículo, expedido por parquímetros que se instalen al efecto.

2. Colocar el ticket en una zona visible del vehículo.

EK\CV GAO-I-2022-02857

3. Ibilgailuak aparkatuta egoteko duen denbora igaro ondoren, ibilgailua kendu egin beharko da. Berriro aparkatu ahal izateko, 2 ordu igaro beharko dira.

Baimendutako ibilgailuak bakarrik egongo dira aparkatzeko tiketa eskuratzetik salbuetsita.

*4. artikulua. Aparkatzeko denbora mugatzea.*

Jarraian aparkatzeko denbora honela mugatzen da:

— Euskal Herria plaza: 480 minutu (8 ordu).

— Urola kalea 8-C (paper-fabrika): 600 minutu (10 ordu).

*5. artikulua. Trafikoaren egoera bereziak.*

Alkate-udalburuak, dagokion Udal Zerbitzuaren Arloak arrazoitutako proposamenaren arabera, eten egin ahal izango du Ordenantza honen aplikazioa, behar bezala arrazoitutako arrazoiengatik trafikoan eta/edo aparkalekuetan edozein modutan eragiten duten aldi edo egunetan.

*6. artikulua. Tasa.*

Ordenantza honetan ezarri ez diren gainerako gauza guztietarako trafikoa arautzen duen Udal Ordenantzan eta hori garatzeko emango diren gainerako araudietan ezarritakoa beteko da.

Trakzio mekanikoko ibilgailuak aparkatzeko orduko tasa, ondoren zehazten diren ordu tarteen arabera finkatzen da:

A. Euskal Herria plazako lurpeko aparkalekua.

1. Ordukako estazionamendua (gehienez 8 orduz jarraian aparkatzeko aukera).

a) 08:00etatik 21:00etara, ordu edo frakzio bakoitzeko 0,20 €.

b) Legazpiko ibilgailuen zirkulazio-zergaren erroldan alta emandako ibilgailuen lehenengo bi orduak doan.

c) 21:00etatik 08:00etara: doan.

B. Urola kalea 8-C (paper-fabrika), gehienez 10 orduz jarraian aparkatzeko aukera.

a) 6:00etatik 22:00etara: doan.

b) 22:00etatik 6:00etara: doan.

II. TITULUA

PLAZAOLA KALEAN EGOILIARRENTZAKO ETA ZAMALANETARAKO DAUDEN PLAZAK ARAUTZEA

*7. artikulua. Xedea.*

Hiriguneko kaleak erabat edo zati batean oinezkoentzat egokitu direnez, kendu diren aparkalekuen ordez bestelako aukerak eskaintzeko, Plazaola kalean (1etik 11ra) aparkalekuak jarri dira:

— Txandakako 69 aparkaleku-plaza, egoiliar-txartela lortu nahi dutenek bakarrik erabiltzekoak.

— Zamalanetarako soilik erabiliko diren 24 aparkaleku-plaza. Ordutegia:

Lanegunetan: 08:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Larunbatetan: 9:00etatik 13:00etara.

*8. artikulua. Egoiliarrentzat gordetako eremua.*

Horrela seinaleztatutako eremuan, Plazaola kalean (1etik 11ra), bakar-bakarrik ondorengo kaleetan erroldatuta dauden pertsonen trakzio mekanikoko ibilgailuak aparkatu ahalko dira: Kale Nagusia, Nafarroa kalea, P. Etxeberria, Aizkorri kalea 1etik 12ra, Plazaola kalea 1etik 11ra, Saturnino Telleria 6 eta 7 eta

3. Transcurrido el período máximo de permanencia establecido se deberá proceder a retirar el vehículo. Para volver a estacionar deberá haber transcurrido el plazo de 2 horas.

Únicamente estarán exentos de obtener ticket de estacionamiento los vehículos autorizados.

*Artículo 4. Limitación del tiempo de estacionamiento.*

La limitación del tiempo de estacionamiento continuado se establece en:

— Euskal Herria Plaza: 480 minutos (8 horas).

— Urola kalea 8-C (Papelera): 600 minutos (10 horas).

*Artículo 5. Circunstancias especiales de tráfico.*

La Alcaldía-Presidencia, a propuesta motivada del Área Servicio Municipal correspondiente, podrá dejar en suspenso la aplicación de la presente Ordenanza durante los períodos o días, que por causas, debidamente motivadas, incidan de cualquier forma en el tráfico y/o estacionamientos.

*Artículo 6. Tasa.*

En lo no previsto en la presente Ordenanza, se estará a lo dispuesto en la Ordenanza Municipal reguladora de tráfico y demás normativa que en desarrollo de lo anterior se dicte.

La Tasa por hora de estacionamiento de vehículos de tracción mecánica en los parkings públicos se asigna en base la las siguientes franjas horarias es la siguiente:

A Parking subterráneo de Euskal herria plaza.

1. Aparcamiento por horas (máximo 8 horas de estacionamiento continuado).

a) De 08:00 horas a 21:00 horas por hora o fracción 0,20 €.

b) Las dos primeras horas para vehículos dados de alta en el padrón del impuesto de circulación de vehículos de Legazpi gratuito.

c) De 21:00 horas a 8:00 horas: gratuito.

B. Parking de Urola 8-C (Papelera) máximo 10 horas de estacionamiento continuado.

a) De 06:00 horas a 22:00 horas: gratuito.

b) De 22:00 horas a 6:00 horas: gratuito.

TÍTULO II

REGULACIÓN DE LAS PLAZAS DE RESIDENTES Y DE CARGA Y DESCARGA EN PLAZAOLA KALEA

*Artículo 7. Objeto.*

Con la finalidad de ofrecer alternativa a las plazas de aparcamiento suprimidas con ocasión de la peatonalización total o parcial las calles de la zona centro, se habilitan en Plazaola kalea (del n.º 1 al 11):

— 69 plazas de aparcamiento en rotación y de uso exclusivo para las personas interesadas en obtener el distintivo de Residente.

— 24 plazas de aparcamiento de uso exclusivo de carga y descarga en horario de:

Días laborales: de 8:00 horas a 13:00 horas y de 16:00 horas a 19:00 horas.

Sábados: de 9:00 horas a 13:00 horas.

*Artículo 8. Zona reservada para residentes.*

En la zona así señalizada, en Plazaola kalea (del n.º 1 a 11) el estacionamiento será exclusivo, si lo solicitan, para los vehículos de tracción mecánica de las personas empadronadas en (Kale Nagusia, Nafarroa Kalea, P. Etxeberria, Aizkorri kalea n.º 1 a 12, Plazaola kalea n.º 1 a 11, Saturnino Telleria n.º 6 y 7 y

EK\CV GAO-I-2022-02857

Santikutz kalea 1, 2, 3, 4, 6 eta 8. Horretarako ezinbestekoa izango da eskaera egitea eta egoiliarraren bereizgarria edo txartela izatea.

Ordenantza honetan zehaztutako bereizgarria jasoko dutenek egoiliarrentzat gordetako eremuetan aparkatu ahal izango dute, gehienez ere 5 egunez jarraian, ezinbesteko arrazoiengatik jasotako berariazko baimenik izan ezean; baimen hori alkate-udalburuak emango du.

5 egunak igaro ondoren, ibilgailua beste aparkaleku-plaza batera eraman beharko da.

*9. artikulua. Egoiliarraren bereizgarria.*

Baldintza hauek batetzen dituzten trakzio mekanikoko ibilgailuen titularrek lortu ahal izango dute egoiliarraren bereizgarria edo txartela, aldez aurretik eskatuta:

— Ibilgailuaren titularrak honako kaleetako helbide batean egon behar du erroldatuta: Kale Nagusia, Nafarroa kalea, P. Etxeberria, Aizkorri kalea 1etik 12ra, Plazaola kalea 1etik 11ra, Saturnino Telleria 6 eta 7 eta Santikutz kalea 1, 2, 3, 4, 6 eta 8.

— Ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zergaren Legazpiko Erroldan alta emanda egon behar du.

— Udalak ezarritako trafikoko zehapenen ordainketak egunean izan behar ditu, halakorik badu.

— Legazpiko Udalarekin dituen betebeharrak egunean izan behar ditu.

Horrek guztiak ez du eragotziko bereizgarri bereziak ematea, mugikortasun murriztua izateagatik edo alkate-udalburuak aintzat hartutako salbuespenezko beste arrazoi batengatik.

*10. artikulua. Egoiliarraren bereizgarria eskatzea.*

Egoiliarraren bereizgarria eskuratu nahi dutenek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

— Horretarako ezarritako eskaera.

— NANaren eta ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren fotokopia.

*11. artikulua. Egoiliarraren bereizgarriaren erabilera eta indarraldia.*

Urtebetekoa izango da egoiliarraren bereizgarriaren indarraldia, eta hurrengo urtean berriro eskatu beharko da.

Errolda-datuak edo ibilgailuarenak aldatuko balira, beste bereizgarri edo txartel bat eskatu behar da.

Bereizgarriak eskuratzeko eskarien arabera, aparkalekuak txandakatzeko sistema bat gaitu ahal izango da, matrikula bikoitiak / matrikula bakoitiak aparkatzeko sistemaren bidez. Alkate-udalburuak onartuko du aparkalekuak txandakatzeko sistema hori.

*12. artikulua. Tasak.*

Ordenantza honetan ezarri ez diren gainerako gauza guztietarako trafikoa arautzen duen Udal Ordenantzan eta hori garatzeko emango diren gainerako araudietan ezarritakoa beteko da.

Egoiliarrentzat gordetako eremuan trakzio mekanikoko ibilgailuak aparkatzeagatiko tasa 50 €-koa izango da urteko.

Ez da ordaindu beharko zamalanetarako gordetako eta behar bezala seinaleztatutako lekuetan ibilgailua aparkatzeagatik.

III. TITULUA

UDALERRIKO BESTE KALE BATZUETAN EGOKITUTAKO APARKALEKUAK ARAUTZEA

*13. artikulua. Xedea.*

Hauxe da Ordenantzaren atal honen xedea: trafikoa antolatzen eta hobetzen laguntzea, 6 metroko luzera eta 3.500 kg-ko pisua gainditzen ez duten trakzio mekanikoko ibilgailuen apar-

Santikutz kalea n.º 1, 2, 3, 4, 6 y 8) y que estén dotados del distintivo de residente.

Las personas beneficiarias del distintivo definido en la presente Ordenanza, podrán estacionar por un período máximo continuado de 5 días en las zonas reservadas para residentes, salvo autorización específica por motivos de fuerza mayor, que será otorgada por Alcaldía-Presidencia.

Una vez transcurridos los 5 días, deberá desplazar el vehículo a otra plaza de aparcamiento.

*Artículo 9. Distintivo de residente.*

Podrán obtener el distintivo de residente, previa solicitud, los titulares de los vehículos de tracción mecánica que cumplan los siguientes requisitos:

— Estar empadronado, el titular del vehículo en (Kale Nagusia, Nafarroa Kalea, P. Etxeberria, Aizkorri kalea n.º 1 a 12, Plazaola kalea n.º 1 a 11, Saturnino Telleria n.º 6 y 7 y Santikutz kalea n.º 1, 2, 3, 4, 6 y 8).

— Estar dado de alta el vehículo en el Padrón del Impuesto de Circulación de Vehículos de Legazpi.

— Estar al corriente de pago de sanciones de tráfico impuestas por el Ayuntamiento si las tuviera.

— Estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones con el Ayuntamiento de Legazpi.

Todo ello, sin perjuicio de que se otorguen distintivos especiales por razón de movilidad reducida u otra razón excepcional considerada por Alcaldía-Presidencia el Ayuntamiento.

*Artículo 10. Solicitud del distintivo de residente.*

Las personas interesadas en adquirir el distintivo de residente deberán aportar la siguiente documentación:

— Solicitud diseñada al efecto.

— Fotocopia DNI y del Permiso de Circulación del Vehículo.

*Artículo 11. Uso y vigencia del distintivo de residente.*

La vigencia del distintivo de residente, será anual, debiendo solicitarlo nuevamente al año siguiente.

Si cambiaran los datos de empadronamiento o del vehículo hay que solicitar un nuevo distintivo.

Atendiendo a la demanda de distintivos, se podrá habilitar un sistema de rotación de aparcamientos mediante el sistema de aparcamiento matriculas pares, matriculas impares. Este sistema de rotación de aparcamientos será aprobado por Alcaldía-Presidencia.

*Artículo 12. Tasas.*

En lo no previsto en la presente Ordenanza, se estará a lo dispuesto en la Ordenanza Municipal reguladora de tráfico y demás normativa que en desarrollo de lo anterior se dicte.

La Tasa por estacionamiento de vehículos de tracción mecánica en la zona reservada para residentes será de 50 €/año.

No existirá obligación de pago por estacionamiento de un vehículo en los lugares debidamente señalizados como zonas de carga y descarga.

TÍTULO III

REGULACIÓN DEL ESTACIONAMIENTO DE PLAZAS HABILITADAS EN OTRAS CALLES DEL MUNICIPIO

*Artículo 13. Objeto.*

Este apartado de la presente Ordenanza tiene por objeto ayudar a ordenar y mejorar el tráfico, mediante la limitación espacial y temporal del estacionamiento de vehículos de tracción

EK\CV GAO-I-2022-02857

kalekua espazioan eta denboran mugatuz, udalerriko beste kale batzuetan egokitutako aparkalekuetan.

Ez da ordaindu beharko ibilgailua Titulu honetan araututako aparkaleku gisa behar bezala seinaleztatutako lekuetan aparkatzeagatik.

*14. artikulua. Ordutegia.*

Herriko kale desberdinetan eta haien ezaugarrien arabera denbora mugatuan aparkatzeko dauden lekuetarako ezarritako ordutegia ondorengoa da:

Kultur Etxeko aparkalekua.

— Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 17:00etara.

— Larunbatetan, 09:00etatik 13:00etara.

Juanastegi kaleko aparkalekua.

— Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 20:00etara.

Plazaola kaleko aparkalekua (Mauleon hotelaren ondoan).

— Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 20:00etara.

— Larunbatetan, 09:00etatik 13:00etara.

Laubide auzoko Eroski pareko aparkalekua.

— Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 20:00etara.

— Larunbatetan, 09:00etatik 13:00etara.

Fleming kaleko BM aparkalekua.

— Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 20:00etara.

— Larunbatetan, 09:00etatik 13:00etara.

Ordutegi hori Alkatetzaren dekretuaren bidez aldatu ahal izango da.

*15. artikulua. Parkimetroa duten eremuetan aparkatzeko baldintzak.*

Parkimetroarekin araututako aparkelkuetan aparkatzeko, arau orokor eta partikular guztiak betetzeaz eta ibilgailuak aparkatzeari buruzko seinaleak betetzeaz gain, honako baldintza hauek bete beharko dira:

1. Tiketa eskuratzea, dagokion denbora-muga eta ibilgailuaren matrikula zuzena adieraziko duena; tiketa horretarako instalatuko diren parkimetroetan aterako da, beharrezkoa izango da tiketa ibilgailuaren aurrealdean erakustea.

2. Ibilgailuak aparkatuta egoteko duen denbora igaro ondoren, ibilgailua kendu egin beharko da. Berriro aparkatu ahal izateko, 2 ordu igaro beharko dira.

*16. artikulua. Aparkatzeko denbora mugatzea.*

Aparkatzeko denbora-muga bat egongo da. Muga hori 60 minutukoa (ordubete) izango da, eta horrek ez du tasarik sortuko.

IV. TITULUA

ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

*17. artikulua. Kontrola.*

Ordenantza bete egingo dela bermatzeko, kontrol zerbitzu bat ezarri da. Zerbitzu horrek beharrezko baliabide material eta giza baliabideak izango ditu.

*18. artikulua. Arau-hausteak.*

Ordenantza honetan ezarritako edozein artikulu edo bere garapenerako Alkate-udalburuak emandako gainerako xedapenak urratzea, trafikoa eta zirkulazioa antolatzeko arauen aurkako arau-haustetzat joko da eta, horrelakoetan, zigorrak ezarriko dira, legez ezarrita dagoen prozeduraren bidez.

mecánica que no superen los 6 metros de longitud y los 3.500 kg, en las plazas de aparcamiento habilitadas en otras calles del municipio.

No existirá obligación de pago por estacionamiento de un vehículo en los lugares, recogidos en este Título, como zonas de estacionamiento regulado.

*Artículo 14. Horario.*

El horario que se establece para el funcionamiento del estacionamiento limitado en las diferentes calles y atendiendo a sus características es el siguiente:

Aparcamiento de Kultur Etxea.

— De lunes a viernes de 9:00 horas a las 17:00 horas.

— Sábados de 9:00 horas a 13:00 horas.

Aparcamiento de Juanastegi kalea.

— De lunes a viernes de 9:00 horas a 20:00 horas.

Aparcamiento de Plazaola kalea (junto a Mauleon).

— De lunes a viernes de 9:00 horas a 20:00 horas.

— Sábados de 9:00 horas a 13:00 horas.

Aparcamiento de Eroski Laubide.

— De lunes a viernes de 9:00 horas a 20:00 horas.

— Sábados de 9:00 horas a 13:00 horas.

Aparcamiento de BM Fleming.

— De lunes a viernes de 9:00 horas a 20:00 horas.

— Sábados de 9:00 horas a 13:00 horas.

Este horario podrá ser modificado mediante Decreto de Alcaldía.

*Artículo 15. Requisitos de estacionamiento en zonas con parquímetro.*

Para estacionar en las zonas de estacionamiento reguladas con parquímetro, además de cumplir además de cumplir todas las normas generales y particulares y observarse las señalizaciones que afectan el estacionamiento de vehículos deberán cumplirse los siguientes requisitos:

1. Obtener ticket con la vigencia temporal correspondiente con la indicación correcta de la matrícula de vehículo, expedido por parquímetros que se instalen al efecto, siendo necesario exhibir el ticket en el parabrisas del vehículo.

2. Transcurrido el período máximo de permanencia de se deberá proceder a retirar el vehículo. Para volver a estacionar deberá haber transcurrido el plazo de 2 horas.

*Artículo 16. Limitación del tiempo de estacionamiento.*

La limitación del tiempo de estacionamiento se establece en 60 minutos (1 hora), no devengando tasa alguna.

TÍTULO IV

INFRACCIONES Y SANCIONES

*Artículo 17. Control.*

Al objeto de garantizar el cumplimiento de la Ordenanza se establece un servicio de control dotado de los medios materiales y personales necesarios.

*Artículo 18. Infracciones.*

La infracción a cualquiera de los artículos de la presente Ordenanza, así como de las disposiciones que en su desarrollo se dicten por la Alcaldía-Presidencia, tendrán la consideración de infracciones a las normas de ordenación del tráfico y circulación y traerá consigo la imposición de sanciones mediante el procedimiento legal establecido.

EK\CV GAO-I-2022-02857

Arau-hausteak izango dira ondoko hauek:

a) Aparkatzeko tiketean jasotako ordu-muga gainditzea.

b) Balio ez duen tiketa edo matrikula okerra erabiltzea.

c) Tiketa edo egoiliarraren bereizgarria ez izatea.

d) Tiket edo egoiliarraren bereizgarri manipulatua, faltsutua, iraungita edo desegokia erabiltzea.

e) Egoiliarrentzat gordetako eremuan aparkatzea, egoiliarraren bereizgarririk gabe.

f) Ibilgailuaren jabetza transferitu ondoren, harentzako emandako egoiliarraren bereizgarria erabiltzea.

g) Egoiliarrentzako gordetako eremuan jarraian aparkateko 5 egunak gainditzea.

h) Bereizgarria edo baimen-txartela izanda ere, hori ez erakustea.

i) Aparkaleku-plaza bat baino gehiago okupatzea.

*19. artikulua. Zigorrak.*

Aurreko artikuluan tipifikatu diren arau-hausteak 30 €-ko isunarekin zigortuko dira.

Aipatu artikuluaren a, b, c, d eta g ataletan tipifikatu diren arau-hausteen kasuan, eta estazionamenduaren neurriz gaineko erabilerarengatik gehiegikeriaz jokatzea badakarte –tiketarik gabe 24 ordutan aparkatuta egotea–, udal-agintaritzak berreskuratu egingo du era ez-egokian okupatutako espazio publikoaren erabilera librea, bertan dagoen ibilgailua hortik kendu eta udal-gordailura eramanez, ezar daitekeen diru-zigorra gorabehera.

Ibilgailua bide publikotik edo aparkalekutik kentzeko zerbitzuak eta udal-gordailuan egingo den egonaldiak, Ordenantza Fiskalean horretarako ezarritako tasak sortuko dituzte.

*20. artikulua. Salaketaren aurretiko ordainketa.*

Parkimetroaren bidez kudeatzeko sistemak, aukera ematen du Ordenantza honetako 11. artikuluko a, b eta c motetako arau-hausteak egiteagatik egindako salaketen zenbatekoa aldez aurretik ordaintzeko, baldin eta ordainketa hori tiketean jasotako denbora amaitzen denetik 24 ordu baino gehiago igaro baino lehen egiten bada, eta, nolanahi ere, dagozkion zerbitzuek oraindik ibilgailua inmobilizatu edo kendu ez badute egin. Ordainketa horrek ez du esan nahi salatutako ibilgailua dagoen lekuan aparkatuta jarraitu dezakeenik, eta, beraz, berehala kendu beharko da bertatik; bestela, inmobilizatu edo bide publikotik kendu ahal izango da, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren.º 104. eta 105. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Aurretiko ordainketa parkimetroetan bertan egiten da.

Salaketaren aurretiko ordainketaren zenbatekoak honako hauek dira:

a) Aparkatzeko tiketean jasotako ordu-muga gainditzea (10,00 €).

b) Tiketa ez izatea edo balio ez duen tiketa erabiltzea (10,00 €).

c) Egoiliarren eremuan aparkatzea, ez dagokionean edo 5 egun jarraian baino gehiago (10,00 €).

Baimendutako eremuetan denbora hori gainditzeak, Ordenantza Fiskalean jasotako tasa sortuko du ordu bakoitzeko.

*21. artikulua. Zigor-prozedura arrunta Arau-hausteak.*

Ordenantza honetan ezarritako edozein artikulu edo bere garapenerako Alkate-udalburuak emandako gainerako xedape-

Se consideran infracciones:

a) Rebasar el tiempo de estacionamiento señalizado en el ticket horario del aparcamiento.

b) Utilizar un ticket no válido- matrícula no correcta.

c) No disponer de ticket o distintivo de residente.

d) Utilizar un ticket o distintivo de residente manipulado, falseado, caducado o no idóneo.

e) Estacionar en zona reservada a residentes sin disponer del distintivo de residente.

f) Utilizar un distintivo de residente una vez transferida la propiedad del vehículo para el que se otorgó.

g) Superar los 5 días de estacionamiento continuado en zona de residente.

h) No exhibir el distintivo de autorización disponiendo de la misma.

i) Ocupar más de una plaza de estacionamiento-.

*Artículo 19. Sanciones.*

Las infracciones tipificadas en el artículo anterior serán sancionadas con una multa de 30 €.

Las infracciones tipificadas en los apartados a, b, c, d y g de referido artículo que supongan una extralimitación por uso abusivo del estacionamiento –24 horas estacionamiento sin ticket– determinarán por sí mismas, que por la autoridad municipal se proceda a recuperar la libre disposición del espacio público indebidamente ocupado retirando dicho vehículo al depósito municipal, con independencia de la sanción económica que se imponga.

La prestación del servicio de retirada del vehículo de la vía pública o parking, así como su depósito devengarán las tasas que al efecto se establezcan en la Ordenanza Fiscal.

*Artículo 20. Abono anticipado de denuncia.*

El sistema de gestión, mediante parquímetro, proporciona la posibilidad de abonar de manera anticipada el importe correspondiente de las denuncias efectuadas con ocasión de la comisión de las infracciones de los tipos a, b y c del artículo 11 de la presente Ordenanza, siempre que el pago se lleve a cabo sin que se haya sobrepasado 24 horas, desde la finalización del tiempo abonado y, en todo caso, que no se haya procedido por los servicios correspondientes a la inmovilización o retirada del vehículo. Dicho abono no supone que el vehículo denunciado pueda continuar estacionado en la zona en que se hallare, debiendo ser retirado de forma inmediata, o de lo contrario podrá ser inmovilizado o retirado de la vía pública conforme a lo establecido en los art. 104 y 105 del Real Decreto Legislativo 6/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial.

El abono anticipado se ejecuta en los propios parquímetros.

Las cuantías de la anulación abono anticipado de la denuncia son las siguientes:

a) Rebasar el tiempo de estacionamiento señalizado en el ticket horario del aparcamiento (10,00 €).

b) No disponer de ticket o utilizar ticket no válido (10,00 €).

c) Estacionar en zona de residente, no correspondiéndole o superar los 5 días continuados (10,00 €).

En las zonas donde se permita rebasar dicho tiempo, devengará por hora la correspondiente tasa que se recogerá en la Ordenanza Fiscal.

*Artículo 21. Procedimiento sancionador ordinario. Infracciones.*

La infracción a cualquiera de los artículos de la presente Ordenanza, que no se hayan anulado previamente, así como de las

nak urratzea, trafikoa eta zirkulazioa antolatzeko arauen aurkako arau-haustetzat joko da eta, horrelakoetan, zigorrak ezarriko dira, legez ezarrita dagoen prozeduraren bidez.

*Xedapen indargabetzailea.*

Indargabetuta geratzen da 2015eko maiatzaren.° 19ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako ordenantza, bai eta ordenantza honetan xedatutakoaren aurka dauden gainerako udal-xedapen guztiak ere.

*Azken xedapena.*

Ordenantza hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

disposiciones que en su desarrollo se dicten por la Alcaldía-Presidencia, tendrán la consideración de infracciones a las normas de ordenación del tráfico y circulación y traerá consigo la imposición de sanciones mediante el procedimiento legal establecido.

*Disposición derogatoria.*

Queda derogada la ordenanza publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 19 de mayo de 2015 y cuantas otras disposiciones municipales se opongan a los dispuesto en la presente Ordenanza.

*Disposición final.*

Esta Ordenanza entrará en vigor a partir del día siguiente a su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2022-02857